

Acinetobacter baumanii BAKTERIOAREN BEREIZKETA GENETIKOA

Canduela M.J., López-Otsoa F., Pujana I., Umaran., Martín G., Gallego L.

Acinetobacter baumanii BAKTERIOAREN BEREIZKETA GENETIKOA

MJ CANDUELA

F LÓPEZ-OTSOA

I PUJANA

A UMARAN

G MARTÍN

L GALLEGO

Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Departamentua

Euskal Herriko Unibertsitatea

Medikuntzako Fakultatea. Mikrobiologiako departamentua.

Leioako kanpua

Tfnoa: .946012850

Posta Elektr: oipumsaa@lg.ehu.es

1.- Sarrera: Acinetobacter baumanii-k ospitaleko infekzioak sortzen ditu, bereziki arnas traktuko gaixotasun kronikoak dituztenen artean. Infekzio hauek aminoglukosidoekin edo betalaktamikoekin tratatu ohi dira, baina, gero eta gehiago, antibiotikoekiko erresistenteak diren anduiak agertzen ari dira, hilgarritasun handiko agerraldiak eragiten dituztenak zaintza bereziko geletan. Teknika genetiko berriak erabil daitezke Acinetobacter baumanii-ren anduiak bereizteko. Bereizketa honek asko laguntzen du agerraldiaren sorburua bilatzen. Beste aldetik, teknika genetikoak erabil daitezke plasmidoak, transposoiak eta integroiak bilatzeko. Antibiotiko ezberdinekiko erresistentzia-geneak biltzen dira aipatutako elementu genetiko hauetan, eta honela, andui batetik bestera joan daitezke hainbat mekanismo genetikoren bitartez, antibiotikoekiko erresistentziak bakterioen populazioan zehar hedatuz.

2.- Helburuak: Acinetobacter baumanii-ren anduien bereizketa genetiko burutzea, Santa Marina ospitaleko isolamenduen artean aldaera genetikoen banaketa aztertzeke. Horrekin batera integroien presentzia, eta ospitale honetako Acinetobacter baumanii-ren populazioaren hedapena ikertzea.

3.- Metodoak: Santa Marina ospitaleko 75 gaixoengandik isolatutako Acinetobacter baumanii-ren 102 anduien DNA erauzi eta zatitu ondoren, zati batzuk anplifikatzen dira polimerasaren erreakzio kateatuaren bidez. Handitzearen produktuak agarosazko geletan bereizten dira elektroforesiaren bidez. Gelak tindatu eta gero argazkiak hartzen dira, irudien arteko antzekotasuna ordenadoreko programa batekin (Molecular Analyst/ Macintosh Fingerprinting (BIO-RAD) izenekoarekin aztertzeke. Integroiak identifikatzeko, andui bakoitzaren DNA Hinf I errestrizio-entzimarekin ebakitzen da, eta gero, agarosazko geletan zatiak bereizten dira

4.- Emaitzak: Guztira 13 aldaera genetiko edo klona bereizi dira, eta andui gehienak hiru klonakoak ziren: I. klonakoak (% 27), II. klonakoak (% 49) edo III. klonakoak (% 11). Gaixo beretik zetozen anduiak gehienetan klona berdinekoak ziren. Lau integroi-mota aurkitu dira 92

anduietan. 550 base-bikote duen b motako integroia oso hedatua dago aztertutako Acinetobacter baumannii-ren populazioan. 55 isolamendutan dago eta hauetariko 49 II. klonakoak dira.

5.- Ondorioak: Erabilitako teknika baliagarria da Acinetobacter baumannii-ren anduiak bereizteko. Bereizketari esker, guk aztertutako bakterioen populazioan II motako klona edo aldaera genetikoa oso hedatua dagoela egiaztatu dugu. Klona hauetako andui gehienak antibiotikoekiko erresistenteak dira, eta b motako integroia dute.